

P. LAFITTE, *Koblarien legea*. Editions "Gure Herria". Bayonne.

Amasei orrialdeko liburuxka bat da. Mattin Irahola bertsulari za-
naren oroitzapenari eskeñia.

Bertsogintzako lege mugak ederki bereizten ditu. Gaiak nola auke-
ratu ta burutu, zenbait doñuren neurriak adieraziz, mintzaera ta azal-
penen edertasunak zelan ornitu, ta abar.

Dan laburrean eztu itzik sobra. Bear bada bertsolariak ez dute bert-
tatik zer ikasirik izango, baña bai noski gure arteko zenbait idazle
bertso-zalek, Larregi dira gure artean izneurtuetan idazteko zaletasun
ori dutenak, naiz ta, poesiaren aldetik ez-ezik, bertso antolamenaren
aldetik ere ezer jakin ez.

Liburuxka au probetxugarri deritzagu izneurtuetan ari diran gu-
zientzat.



CHARAMELA. *Bertso ta erri-kanta bilduma*. Imp. Laharrague,
Bayonne.

Oraindik argitaratu berri da. Eun da ogeita bost kantu dakarzki
bere 128 orrialdeetan.

Xalbador bertsulariari buruz mintzatzen ari giñelarik, J. M. Le-
kuona-ri esker, arkitu nuan liburutxo au. 37-garren orrialdean argi-
taratzen bai dira Xalbadorren "Esperantzarik gabeko amodioa" ber-
tsu aipatuak. An bai dala poesia eta ez gure beste zenbait olerkariren
artean.

Mugaz andiko zenbait kantu samurren artean emengo batzuk ere
azaltzen dira.

Ta nik ez dakit zergaitik, baña alde artako argitalpenetan maizago
arkitzen ditugu kantak, diran bezela, emen oitzen dan konponketi
gabe.

J. S. M.

